



Udal aldizkaria

2016ko iraila. 4. alea

Lege-gordailua: DL NA 2406-2015

AURKIBIDEA

JAIK 2-3

IKASTAROK 4

UDALA 5

MOTX-MOTXEAN 6

HURRENGO HITZORDUAK 6

GALDETEGIA 7-8

“Herriarren nahiak zein diren jakin nahi
dugu hurrengo jaiak antolatzeko” / 7-8

JAIK ETA BESTE...

Jai Batzordearen balorazioa / 2



Goizuetako Udala



izaera eta izatea

JAI BATZORDEA FIESTAZ

Aurtengo fiestak ere pasa dira eta dagoeneko egin du bere balorazioa Jai Batzordeak. Orokorrean, positiboa egin dute bertan bildutako herritarrek. Hala ere, aipatu behar da, batzuentzako, zezenen hutsunea handia izan dela, bereziki Peñaren egunean. Agian honek ekarri zuen inoiz baino jende gutxiago lotu izana kalejiran. Baina hala ere, eguna berak hausnarketa bat behar duela aipatu zen.

Aurten, fiestak, egun bat gehiago izanik, gogotsu ekin zioten gazteek. Gazte eguna izaki, gazte asko hurbildu zen larunbata izanda. Goizetik plaza koloreztatu zuten eta arratsalde zein gauean ere giroak jarraitu zuen. Gaueko kontzertuek ere plaza bete zuten.

Sei egunez, ekitaldi ugari izan dira jaietan eta herriko nahiz kanpoko jendea hurbildu da. Urteroko ekitaldiei begira (sagardo eguna, bakailao lehiaketa, Umore-Ona dantza taldearen emanaldia...) erantzun ona izan dute eta parte hartzea ona izan da. Baina bereziki, ekintza berriek izan duten arrakasta aipatu zen: trialsin ikuskizuna, erraldoien kalejira, Zo-Zongó batukada, Txamukos mariatxiak eta Nafarroako jotak. Asteazkenera zenbait ekitaldi ikastolan egin izana positibotzat baloratu zuten.

Tabernariak beraien aportazio ekonomikoa egin izana eskertzekoa da eta herritarrek, positibotzat ikusten dute baita ere, taberneak eta eragileek beren ekitaldi propioak antolatzea.

Aipatu zen beste gaia Amabirjin eguneko prozesioan udalaren presentziarik egon ez izana da. Honen inguruan, udalak, erakunde publiko eta sinesmen erlijiosoen arteko bereizketa defendatzen du: "Agerian dago gizartea geroz eta anitzagoa dela eta bada garaia, naturaltasun osoz, sinesmen ezberdinak dituzten zein ez dituzten herritar guztien berdintasuna bermatzen duen laikotasun eta neutraltasun printzipio demokratiko horretarantz pausuak emateko".

Jai Batzordean aipatu eta herritar askok ere sare sozialetan salatu duen gisan, kanpinean gazteak etorri izana positibotzat hartzen da, gustura hartzen ditugu gainera herrian, baina alde egitean utzi zuten zabor pila lotsagarritzat jotzen da. Hernaniko Kronikari ere elarazi zitzaion informazioa ikusirik gazte asko bertatik hurbiltzen dela.

Bukatzeko, beste puntu positiboak, eskolako eremua aparkaleku gisa erabiltzea eta larrialdietan inor artatu behar ez izana aipatu ziren. Lehenengo kasuan, egoki ikusi zen herrigunea eta errepide bazterrak kotxez bete ez daitezen ezbeharrak saiheste aldera. Bigarrenetan, iazko datuak eta aurtengoak alderatuz, albiste aipagarria izan da. Iaz, zezenak eta edari nahiz droga kontsumoengatik, ospitalera bideratutako larrialdiak zortzi izan ziren eta kontsultara bertarututakoak beste hiru. Aurten, aldiz, ez da inor artatu beharrik izan horrelako arrazoiengatik.



2016-KO FIESTETAKO AURREKONTUA

Ekitaldia	Prezioa	Ekitaldia	Prezioa
Umeen eguneko zezenak eta poniak	500€	Herriko trikitilariak	100€
Trialsin ikuskizuna	600€	Umore-Ona dantza taldea	200€
Mugi zaitez disko festa	385€	"Voces Navarras" jotak	900€
Laiotz berbena	1.700€	Azken trena kontzertua	250€
Erraldoien kalejira	1.400€	Pilota Goizueta-Arano	680€
Herriko erraldoi eta buruhandiak	350€	Zo-Zongó batukada	1.500€
Igandea txaranga	5.950€	Iratzar berbena	1.550€
Igandea txarangaren otorduak	1.500€ inguru	<i>Gastu fijoak</i>	
Beste musikoen otorduak	1.948€ inguru	- Pertsonala	1000,26€
Upel pilota elkarteak	1.650€	- Programa	1.100,45€
Gabezin berbena	1.200€	- Publizitatea	724,38€
Dultzaineroak	200€	- Autobus zerbitzua	595,50€
Pilotari afizionatuak	640€	- Argi indarra	389,50€
Herri kirolak	850€	- Komonak (Alquibalat)	1.733,16€
Bertsolariak	1.679,22€	- Aseguruak	32,18€
DJ Mikeltxi	605€	- Sociedad General de Autores	450€ inguru
Bakailao lehiaketa	145€	Besterik (itxaferoak, konfetik, plataforma...)	765,33€ inguru
Txamukos mariatxiak	1.280€	Zezenak (ohiko gastua)	8.200€
Beñat eta Fernando musikariak	400€		
GUZTIRA (zezenik gabe)			34.952,98€

IKASTAROAK

2016-2017 IKASTURTERAKO UDAL IKASTAROAK

2016-2017 ikasturterako Udalak eskaintzen dituen ikastaroetan izena emateko epea irekia dago. Ikastaro hauek eskainiko dira: BIODANTZA eta DEKORAZIO MARGOGINTZA.

BIODANTZA (urritik-ekainera):
Bizipoza, Kontzientzia, Osasuna.
Murgildu musikaren ozeanoan.

HELDUENTZAT

Iraupena: astean 2 orduko saio bat.

Eguna: izena ematen dutenekin zehazteko.

**Gutxieneko ikasle kopuruarekin prezioa:
283.50€

3-7 URTEKO HAURRENTZAT

Iraupena: astean ordu beteko saioa.

Eguna: izena ematen dutenekin zehazteko.

**Gutxieneko ikasle kopuruarekin prezioa:
141.75€

8-11 URTEKO HAURRENTZAT

Iraupena: astean ordu beteko saioa.

Eguna: izena ematen dutenekin zehazteko.

**Gutxieneko ikasle kopuruarekin prezioa:
141.75€

DEKORAZIO MARGOGINTZA

(urritik-apirilera)

Teknika desberdinak lantzeko aukera izando da ikastaroan:

- Altzariak berritu, margotu, apaindu eta itxura aldatu.
- Olioizko margoekin koadroak margotu.
- Egurrezko kaxak, markoak etab. apaindu.
- Beirazko botilak, marmitak, oihala etb. apaindu.

Iraupena: astean 2h 30 minutuko saio bat

Eguna: ostiraletan, 16:30-19:00

**Gutxieneko ikasle kopuruarekin prezioa:
250€

* Gutxieneko ikasle kopurua 8 pertsonakoa izango da.

** Ikastaroaren prezioa aldatu egingo da ikasle kopuruaren arabera. Orduan eta ikasle gehiago, merkeago izango da ikasleentzat. Behin-betiko prezioa izen ematearen azken egunean zehaztuko da.

Interesatuak Udaletxera joan beharko dute irailaren 29a baino lehen.

Ordutegia: astelehenetik ostiralera 9:00-12:30 bitartean.

Aurkeztu beharrekoa: ordainketak egiteko kontu korrontearen zenbakia.

BIDE GORRIA

Bide gorriaren epaia udalaren aldekoa izan da.

2009an onartu zen Plan Munizipalean ez ziren behar bezala jasotzen bide gorriaren proiektua egiteko zehaztapenak. Udalak aldaketa bat egin zuen Plan Munizipalean proiektu hau aurrera eraman ahal izateko baina udalaren egokitzapenak kontrako errekurtso bat jaso zuen, Auzitegi Goreneraino iritsi dena.

Orain, Auzitegi Gorenak azken epaia eman du eta ebatzi du Nafarroako Gobernuak onartu zuen udalaren Plan Urbanistiko Munizipala legeak eskatzen zituen betekizun guztiak onartuta egin zela. Ondorioz, udalak aurrera eraman nahi zuen bide gorria egiteko aukera egongo da.



Bide gorria, Telleri.



Zubi haundia obrak egin ondoren.

ZUBI HAUNDIKO OBRAK

Negurako zutabeak sendoturik daude.

Azkeneko urteetan Zubi haundiaren zutabeak oso gastatuak zeuden errekek daukan indarraren eraginez. Neguan, erreka indar gehiagorekin datorrenean, Zubi haundiko erdiko bi zutabeetan egiten du presioa eta urteen ondorioz, oso gastatuta zegoen harria. Horregatik, orain erreka txikia datorrela aprobetxatuz, eta negurako prest egoteko, Zabala eta Goikoetxea eraikuntza enpresak Zubi haundiko obra lanak egin ditu.

Iraila hasieran egin dira lanak, egun batzuetako zeregina, eta 4.138,20€ko kostua izan du. Heldu den negurako, Zubi haundia sendotua dago uraren indarrari aurre egiteko.

MOTX-MOTXEAN

ETB NAFARROAN IKUSGAI

Euskal Telebista Nafarroan LTD bidez ikusteko prozesua bukatu du foru gobernuak. Hala, irailak 22tik aurrera, Nafarroa guztian ikusgai dago berriro. ETB2 ia Nafarroa guztian ikusi ahalko da tokiko multiplexen kanalen bidez eta ETB1 multiplex autonomikoaren bidez ikusi ahalko da. Horretarako, kanalak berriro sintonizatzearekin nahikoa izango da EitB ikusi ahal izateko.



IKURREN LEGEA NAFARROAN

Nafarroako Parlamentuak ikurren legea “ahalik eta azkarren” bertan behera uzteko adierazpen instituzionala onartu du Gerroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu eta Ezkerraren aldeko botoekin. Lege berri bat egingo dute, “aniztasuna eta sentimendua kontuan hartuz”.



ANBULANTZIA

Herriko suhiltzaile bolondresen ambulanzia uda hasieratik gel-dirik dago. Izan ere, iraungitze data iritsi zitzaion. Berria ekarri bitartean, Nafarroako Gobernuak, alokatutako ambulanzia bat bidali zuen, herritarren larrialdi zerbitzuei aurre egiteko eta uda osoan ambulanzia hau egon da herrian. Gobernutik jakitera eman dutenez, laister da ambulanzia berria iristekoa.



KIZKI EGUNA

Zortzigarren urtea izan du aurtengoa Kizki egunak. Zortzigarrena eta azkena. Izan ere, zazpi herritan ospatu ondoren (Astigarraga, Oiartzun, Goizueta, Hernani, Donostia, Usurbil eta Orereta), igandean Astigarragan zazpi herriak bildu eta azken jaialdia antolatu zuten urte hauetako erronkei amaiera emateko.



HURRENGO HITZORDUAK

2016-10-02 KILOMETROAK. Bergara.

2016-10-16 NAFARROA OINEZ.

Viana-Lodosa.

2016-10-25 19:00. OHIKO BATZARRA.

Udaletxea.

2016-11 AZARO KULTURALA. Goizueta.

2016-11-25 EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNA.

2016-11-26 FERI EGUNA. Goizueta.

2016-11-29 19:00. OHIKO BATZARRA.

Udaletxea.

2016-12-03 NAFARROAREN eta EUSKARAREN EGUNA.

Udalak, jaien inguruko zure iritzia jakin nahi du. Batez ere, baliagarria eta ezinbestekoa delako hurrengo urteetarako jaiak denen gustokoak antolatzeko.

Mesedez, erantzun ondorengo galdetegia, moztu eta sartu udaletxeko buzoian urriak 14a baino lehen. www.goizueta.eus webgunean ere eskuragarri duzue.

ESKERRIK ASKO!

Adina:

1. Zer iruditu zaizkizu aurtengo jaiak?

Baloratu 1etik (oso txarrak) 10era (oso onak).

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

2. Zer aldatuko zenuke?

3. Baloratu ekintza bakoitza 1etik (oso txarra) 10era (oso ona).

Ekitaldiren bat ez baduzu baloratu nahi txurian utzi daiteke.

☐ Berbenak (gaueko musika)

☐ Mariatxiak

☐ Txaranga

☐ Jotak

☐ Zezenak

☐ Kale animazioa

☐ Pilota partiduak

(elektrotxaranga, batukada)

☐ Kontzertuak

☐ Puzgarriak

☐ Ekitaldi parte hartzaileak

☐ Dultzaineroak

(sagardo probaketa, bakailao lehiaketa)

☐ Bertsolariak

☐ Herri kirolak

☐ Erraldoi eta buruhandiak

☐ Besterik _____

4. Garbitasunak (komonak eta kale garbitzaileak) jaietako aurrekontuaren %7,2 hartzen du. Nahikoa da?

☐ Bai.

☐ Ez. Handituko nuke.

☐ Ez. Txikituko nuke.


5. Jaiak urteko udal aurrekontuaren %3,7 hartzen dute (38.000€). Ongi dagoela uste duzu?

☐ Bai.

☐ Ez. Handituko nuke.

☐ Ez. Txikituko nuke.

6. Baduzu besterik esateko? Idatzi lasai nahi duzuna.



Udalak, jaien inguruko zure iritzia jakin nahi du. Batez ere, baliagarria eta ezinbestekoa delako hurrengo urteetarako jaiak denen gustokoak antolatzeko.

Mesedez, erantzun ondorengo galdetegia, moztu eta sartu udaletxeko buzoian urriak 14a baino lehen. www.goizueta.eus webgunean ere eskuragarri duzue.

ESKERRIK ASKO!

Adina:

1. Zer iruditu zaizkizu aurtengo jaiak?

Baloratu 1etik (oso txarrak) 10era (oso onak).

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

2. Zer aldatuko zenuke?

3. Baloratu ekintza bakoitza 1etik (oso txarra) 10era (oso ona).

Ekitaldiren bat ez baduzu baloratu nahi txurian utzi daiteke.

☐ Berbenak (gaueko musika)	☐ Mariatxiak
☐ Txaranga	☐ Jotak
☐ Zezenak	☐ Kale animazioa (elektrotxaranga, batukada)
☐ Pilota partiduak	☐ Puzgarriak
☐ Kontzertuak	☐ Dultzaineroak
☐ Ekitaldi parte hartzaileak (sagardo probaketa, bakailao lehiaketa)	☐ Herri kirolak
☐ Bertsolariak	
☐ Erraldoi eta buruhandiak	☐ Besterik _____

4. Garbitasunak (komonak eta kale garbitzaileak) jaietako aurrekontuaren %7,2 hartzen du. Nahikoa da?

☐ Bai. ☐ Ez. Handituko nuke. ☐ Ez. Txikituko nuke.

5. Jaiek urteko udal aurrekontuaren %3,7 hartzen dute (38.000€). Ongi dagoela uste duzu?

☐ Bai. ☐ Ez. Handituko nuke. ☐ Ez. Txikituko nuke.

6. Baduzu besterik esateko? Idatzi lasai nahi duzuna.

